iritzia

gaurko...

...elkarrizketa

Inozentzio Aierbe

• ARALARKO SAN MIGELEKO ERRETOREA •

«Kofradiari buruzko lehen dokumentua XII.mendekoa da»

Kofradiaren eguna ospatuko dute igandean Aralarko Santutegian.

■ **Noizkoa da San Migelen kofradia?**

Zehazki noiz sortua den ezin jakin, baina XII. mendekoa da horri buruzko lehen dokumentua. Dokumentu horretan, kofradeek bete beharreko arauak biltzen dira. Badirudi, halere, X. mendean sortu zuela Pedro de Roda apezpikuak. Orduan, eliza nagusia eraikitzen ari ziren, eta horrelako diru iturri bat behar beharrezkoa zen proiektua aurrera ateratzeko. Izan ere, santutegiari laguntza emateko prest dagoen jendea biltzen du kofradia horrek. Urtero urtero, kuota txiki bat ordaintzen dute kofradeek santutegiaren mantendurako. Baina laguntza eskaintzea ez da dirua ematea soilik. Bestelako laguntza espirituala ere luzatu behar zaio.

■ **Zenbat kide ditu kofradiak?**

Egun, 1500 lagun biltzen ditu kofradiak. Tartean badira Valentzia edo Zaragozakoak ere, baina gehienak Euskal Herrikoak dira. Kofradiaren sorreran, ordea, 40.000 omen ziren kideak, beraz, nafar gehienak biltzen zituen. Baina, gero, irudia eta presentzia galdu zuen, eta joan den mendearen bukaerarako, adibidez, ia desagertzear egon zen. Duela urte batzuk, santutegia miresten zuen lagun talde bat hurbildu zitzaidan, ea nola lagundu zezaketen galdezka, eta kofradia berreskuratzeko ideia luzatu nien.

■ **Zein ekitaldi egingo dituzue igandean?**

12:00etan, meza nagusia izango da. Gero, bazkaria, eta bazkalostea, noski. Dena den, ez dakit aurten hainbeste jende hurbilduko den, eguna aldatu beharra izan dugulako.

Urko Aristi
IRUÑEA

...esaera

«Norberak haritutako amaraunean ito»

...hizpideak

Borondate politikoaren eskasa

■ Frantses estatuko hizkuntz gutxituen defendatzaileek bigarren zafraldia bildu dute atzo. Joan den maiatzaren 7an bildu zuten lehena, Budapesten Frantziak Eurokarta minimalista bat izenpetu zuenean. Frantziak ukatu zuen hizkuntz gutxituei buruzko neurriak sartzea bizitza publikoan, eta zegoen egoera ofizializatu zuen. Alabaina, nolazbaiteko ezagupena egitea urrats baikor bat bezala hartua izan zen.

Kontseilu Konstituzionalak erabaki du ez dela bigarren urratsik eginen hizkuntz gutxituen ezagutzeko bidean. Izan, Frantziak onartutako 39 artikuluak ontzat jo baditu ere, egitura juridikoak adierazi du itunaren hitzaurrea Konstituzionalaren aurka zihoala. Besteak beste, ez ditu onartu hizkuntza gutxituak eskubide ukaezinak bizi publikoan eta pribatuan, ezta hiztunen taldeen eskubideak ere.

Erabaki horren ondorioz, Jacques Chirac lehendakariak eta Lionel Jospin lehen ministroak eskuetan dute berriro arazoaren gakoa. Behin baino gehiagotan, biek azpimarratu dute hizkuntza gutxituarekiko atxikimendua. Sinesgarritasun bat erdiesteko, hitzetik ekintzetara pasatzeko nahikaria frogatu beharko dute. Duela gutxi, Kanakiako eta Polinesiako hizkuntzen eskubideak ezagutuz frogatu dute frantses agintariek aldaketa nagusiak posible zirela benetako borondate politikoa balin bazen. Eurokarta izenpetzeko, aldiz, Konstituzioa aldatzea funtsezko urratsa izanen da. Apustu handia izanen da; baina nahikari politikoa izanez gero, erabaki erraza...

Bada Iparragirre ezezagun bat

■ Kantari ezagunik bada hura Iparragirre da, Urretxuko bardoa. Baina istorioak eta historia ez dira beti ezkontzen, eta haren bizipen, pentsamendu eta kantagintzaren inguruko hainbat gezur agertu eta zenbait egia argitu ditu Natxo de Felipek. Urretxun aurki haren inguruan emango den ikuskariaren prestaketa lanetan topatu du Oskorri taldeko kantariak Iparragirre ezezagun hori .

Bi urte gehiago 35 orduetarako

■ URTEBETE iragan da Ipar Euskal Herrian eta Frantzian 35 orduko lan astearen legea indarrean jarri zenetik, eta orain legearen bigarren atala prestatzen dihardu Parisko gobernuak.

Arau osagarri horretarako hainbat berrikuntza proposatuko dizkio Lan ministroak Legebiltzarrari. Berrikuntza horiek aurrera egiten badute, 35 orduko lan astera egokitzeko epea beste bi urte luzatuko zaie 20 langiletik gorako enpresei. 2002. urtea arte, beraz, legezkoa izango zaie 35 orenak gainditzea.

Medef patronalak kanpaina gogorra egin du Aubry legearen aurka, eta presio horien aurrean kikildu izana leporatu diote orain ministroari bere gobernukide PC eta Berdeek.

Sindikatu nagusiak, ordea, ados daude luzamenduarekin, horrek negoziaziorako tartea zabalduko duelako.

...pertsonaiak



ALBERTO ALBISTEGI • Hamabost urte profesional moduan aritu ondoren, Alaveseko jokalariak agur esango dio futbolari. Etorkizunean futbolari lotuta jarraitu nahi duela adierazi du jokalari eibartarrak.



TXARO ARRAZOLA • Gasteizko artistak *En Movimiento* (Mugimenduan) izenburuko erakusketa ikusgai du Arabako Artxibo Historikoan. Bideoa eta argazkia uztartu ditu, emakumearen soineko kola luzedun batekin.



ANTHONY QUINN • *Camino de Santiago* (Donejakue bidea) izeneko telesailean parte hartuko du Charlton Heston aktorearekin batera. Gaur hasiko dira filmaketa lanak Nafarroako zenbait tokitan.

...datua

181 milioi pezeta (7,25 milioi libera inguru) jaso ditu Kontseiluak *Lanordu bat Akordioaren Alde* kanpainaren bidez.

...adierazpena

«Gipuzkoan baino ez dago bertsolaritza segurtatua»

•

Manolo Arozena
Bertsolaria

...seiko urrea

XABIER GURRUTXAGA

Igandeko argazkiaren ondorioak

Pasa den igandean egindako hauteskundeetan izandako emaitzek kolore anitzetako Hego Euskal Herria erakutsi digute. Jakin bagenekien gure gizartea politikoki eta ideologikoki plurala zela eta aniztasun hori bera da, hain zuzen, berriro ere modu trinko eta nabarmen batean azaldu dena inortxok ere ahantzi ez dezan. Hori da hauteskunde hauetan jaso den lehen gaztigua.

Bigarren ondorioetako bat da alderdi politikoen pisu eta eragin instituzionalak aldaketa garrantzitsuak izango dituela seguraski. Hau da, ikuspuntu honetatik bi bloke nabarmen daude: PP-PSOE eta EH taldeek presentzia eta indar instituzionala mantentzen eta indartzen duten neurrian, PNV-EA eta IU-EB alderdiek beheruntz egin dute.



Hirugarren ondorioa litzateke euskal gizartean dagoen pluraltasun aberasgarri hori esparru instituzioanalean gorpuzten denean, fragmentazioa eta dispersio instituzionala suposa dezakeen eredu baten arabera azaltzen dela. Horren adierazgarri izan litezke Hegoaldeko hiriburu bakoitzean alderdi diferenteek irabazi dutela (PP izanik bietan irabazi duena), eta horretaz aparte lau Lurralde Historikoetako errepresentazioari dagokionez ustezko herri bat hori bitan banatzen dela. Herri honen eraikuntza baterakoi baten alde bagaude, sentitzen dut baina Otegi jaunak ez du arrazoi: igandean ez da independentziarunzko *cuenta atrás*ik hasi. Igandean eman zena da, besteak beste, EH bizitza politiko arruntean modu duin batean integra dadin emaitza oso egokiak.

Laugarren ondorioa pasatuz, esan behar da Lizarrako akordioa sinatu zutenen artean irabazleak eta galtzaileak daudela. Ustez denek interes amankomun bat badute ere, garbi gelditu da akordio horri buruz gizarteratu den irudiak batzuei mesede handia egin diela (EH-PP-PSOE) eta beste batzuei berriz ez. Begibistakoa da hiritarren kopuru handi batentzat Lizarrako akordioa eta EHren helburuak gauza bera direla eta identifikazio horrek kalteak ekarri dizkiela PNV-EA. Azkenik garbi gelditu da aurrerantzean beharrezkoa dela partiduen arteko elkarrizketa berreskuratzea; ezinbestekoa dela PNV-PSOE eta EHren arteko akordioetarako jarrerak indartzea eta horretarako premiazkoa bada malgutasuna erakustea, premiazkoagoa dela EH konturatzea prozesuan mantsotasuna bertute bat dela.